

KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 10/2024 EPAIAREN INGURUKO IRUZKINA: LEGE-DEKRETUAK ETA AURREKARIEN BALIZKO BEHARREZKOTASUNA. *IUS IN OFFICIUM* PRINTZIOAREN EGIKARITZA¹

COMMENT ON CONSTITUTIONAL COURT JUDGEMENT 10/2024: DECREE-LAWS AND POSSIBLE NECESSITY OF PRECEDENTS. EXERCISE OF THE *IUS IN OFFICIUM* PRINCIPLE

Aratz Labaien Gorospe

Markel Zubiaga Iriarte

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Cómo citar / Nola aipatu: Labaien Gorospe, A. eta Zubiaga Iriarte, M. (2024). Konstituzio Auzitegiaren 10/2024 Epaiaren inguruko iruzkina: lege-dekretuak eta aurrekarien balizko beharrezkotasuna. *Ius in officium* printzipioaren egikaritza. *Legebiltzarreko Aldizkaria - LEGAL - Revista del Parlamento Vasco*, 5: 158-169
<https://doi.org/10.47984/legal.2024.005>



LABURPENA

Konstituzio Auzitegiaren 10/2024 Epaiaren inguruko iruzkina da hau. 36/2020 Errege Lege Dekretuaren baliozkotzearen harira sortu zen epaiari bide eman zion gatazka. Talde Popularreko diputatu baten ustez, Gobernuak ez zuen aipatutako errege lege-dekretuaren inguruko nahikoa informaziorik igorri Kongresura errege lege-dekretua baliozkotzean. Epai honetan, Konstituzio Auzitegiak aztertzen du informazio falta hori *ius in officium*aren aurkakoa ote den, eta zer neurritan. Zehatzago esanda, lege-dekretuei lotutako irizpen teknikoek, besteak beste Estatu Kontseiluarenek, parlamentarien *ius in officium*ean izan dezaketen eraginaz mintzo da. Lege-dekretuek Kongresuan jarraitzen duten prozedu-

ran aipatzekoa da parlamentarien *ius in officium*a zalan-tzan jar daitekeen bi une erabakigarri daudela. Batetik, lege-dekretuak baliozkotzen diren unea; eta bestetik, lege-dekretuak lege-proiektu gisa izapidetzen diren unea. Gatazka nabaria dago legeak zorrozki dioenaren eta printzipio parlamentarioen artean. Konstituzio Auzitegiak ikuspuntu positibista lehenesten du, baina printzipioak erabat alboratu gabe. Azkenik, epai horrek botere exekutibo eta legegilearen arteko oreka eta kontrapisuei nola eragiten dien hausnartzen da laburki.

GAKO-HITZAK

Konstituzio Auzitegia, *ius in officium*, lege-dekretua, txosten teknikoak, botere banaketa.

¹ Artikulu hau gaztelaniaz ere eskuragarri dago <https://doi.org/10.47984/legal.2024.005>

RESUMEN

El presente comentario jurisprudencial trata sobre la Sentencia 10/2024 del Tribunal Constitucional. El debate jurídico que da pie a la sentencia surgió a raíz de la convalidación del Real Decreto-ley 36/2020, pues en opinión de una diputada del Grupo Popular, el Gobierno no remitió la debida información al Congreso en relación con el real decreto ley. El Tribunal Constitucional valora en qué medida pudo haber afectado esta falta de información al *ius in officium* de los parlamentarios y parlamentarias; más concretamente, se examina si la falta de informes técnicos, que habitualmente suelen acompañar a los decretos leyes, puede acarrear una vulneración del *ius in officium*. Cabe destacar que el *ius in officium* puede estar en riesgo en dos momentos clave: a la hora de convalidar el decreto-ley por una parte y, por otra, al tramitar el decreto como un proyecto de ley. Ante esta situación, existe un debate notable entre lo que estrictamente exige la ley y lo que aconsejan los principios parlamentarios. El Tribunal Constitucional aboga por una solución positivista, pero sin ignorar del todo los principios. Finalmente, se incluye una breve reflexión sobre el efecto que esta sentencia ha podido tener en el equilibrio de poderes entre el legislativo y el ejecutivo.

PALABRAS CLAVE

Tribunal Constitucional, *ius in officium*, decreto-ley, informes técnicos, división de poderes.

ABSTRACT

This commentary deals with the ruling 10/2024 of the Constitutional Court. The controversy underneath arose when a Government's decree had to be validated by Parliament. According to a deputy from the Popular Group, the Government failed to send all the necessary information related to the decree. The Constitutional Court assesses whether this lack of information would imply a violation of the *ius in officium* of parliamentary members. More specifically, the Court explains to what extent a lack of technical reports can affect the fundamental rights of deputies. It is worth mentioning that the *ius in officium* can run risk, particularly in two key moments. Firstly, when a law decree is validated. And secondly, when law decrees are brought under the rules of law-projects. There is a remarkable clash between what law strictly says, and what parliamentary principles recommend. The Constitutional Court leans towards a more positivist view, although not leaving the referred principles aside. Finally, a brief comment can be found on how this ruling has affected the checks and balances between the legislative and the executive.

KEYWORDS

Constitutional Court, *ius in officium*, law decree, technical reports, division of powers.

AURKIBIDEA

- I. SARRERA.
 - II. GERTAKARIAK ETA ARAZOAREN PLANTEAMENDUA. 1. Gertakariak. 2. Aldeen ikuspuntuak.
 - III. AZALPEN OROKORRA: "IUS IN OFFICIUM" PRINTZIPIOA ETA KONSTITUZIO AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIA ETA DOKTRINA.
 - IV. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN ERABAKIA.
 - V. BOTO PARTIKULARRAREN ANALISIA.
 - VI. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA.
- BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Botere exekutiboaren eta legegilearen arteko harremana gatazkatsua izaten da sarrri. Parlamentua da Gobernuaren duena eta hari eusten diona, baina aldi berean, Gobernuaren ikuskari zorrotza ere bada (Aja, 1984: 30-32). Azken boladan parlamentu gero eta zatikatuagoak ikusten ditugu inguruan. Zatikatzeko hau ez da zentzu negatiboan ulertu behar, eztabaida politikoa eta desberdinen arteko akordioa sustatzen baititu. Baina, neurri berean, Gobernu eta Parlamentuaren arteko talkak areagotzen ditu (Montilla Martos, 2023: 21-22). Bi botereak igurztean txinpartak sortzen diren eremuetako bat lege-dekretuena da, zalantzarik gabe. Hala izan da historikoki, eta gaur egun ere bai (Iglesia, 1997: 160-164).

Lege-dekretuak Gobernuak onartutako lege-mailako arauak dira, eta 30 eguneko indarraldia dute, Parlamentuaren inongo babesik izan ez arren. Izatez Parlamentuari dagokion funtzio bat, legegintza, Gobernuari aitortzen zaio lege-dekretuen bidez². Hala ere, ez da guztiz zuzena lege-dekretuak Gobernuaren aginte-tresna besterik ez direla pentsatzea. Lege-dekretuak Parlamentuak baliozkotu behar ditu, eta hala gertatzen ez denetan, Gobernuak ahuldade politikoan gelditu daiteke. Hots, aho biko ezpatak dira lege-dekretuak (Montilla Martos, 2023: 31-34). Beraz, ukalezina da arau hauen izaera delikatuak, botereen arteko kontrapisu eta orekei zuzenean eragiten dietelako.

Horregatik, biziki interesgarria da Konstituzio Auzitegiaren 10/2024 epaia lantzea. Izan ere, berehala ikusiko dugun bezala, 36/2020 Errege Lege Dekretua baliozkotzean, parlamentari batzuei iruditu zitzaie ezin izan zituztela beraien funtzioak egoki bete, Gobernuak ez omen zuelako nahikoa informaziorik eman dekretuaren inguruan. Beraz, Gobernuak abusuz jokatu zuen aztergai dugun kasuan? Legegilearen eta exekutiboaren arteko oreka kolokan jarri zen? Zer dio zehazki Konstituzio Auzitegiak Estatu-ko botereen arteko harremanez lege-dekretuen kasuan? Besteak beste, galdera hauek erantzuteaz arduratuko da segidan datorren lana.

II. GERTAKARIAK ETA ARAZOAREN PLANTEAMENDUA

1. GERTAKARIAK

2020ko abenduaren 22an 36/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen Ministroen Kontseiluak. Lege-testu hori lantzeko hiru irizpen baliatu zituen Gobernuak; besteak beste, Estatu Kontseiluak egindakoa. Ministroen Kontseiluak onartu ondoren, Kon-

2 Ikus. KAE 137/2011, 2011ko irailak 14. "[...] el art. 86 CE habilita, desde luego, al Gobierno para dictar, mediante real decreto-ley, normas con fuerza de ley, pero en la medida en que ello supone una sustitución del Parlamento por el Gobierno, constituye una excepción..." 4. OJ.

gresura igorri zen aipatutako lege-dekretua³. Ordea, testua lantzeko Gobernuak erabili zituen irizpenak ez ziren bidali. Hala ere, Kongresuak 2021eko urtarrilaren 28an baliozkotu zuen lege-dekretua. Behin onetsita, lege-proiektu forma hartu zuen eta zego-kion batzordera bideratu zen bertan onar zedin.

2021eko otsailaren 3an Talde Popularreko parlamentari batek kexa-idazki bat aurkeztu zuen Kongresuko presidenteari. Errege lege-dekretuari Estatu Kontseiluaren irizpena falta zitzaiola argudiatzen zen kexan. Otsailaren 4an, Kongresuko presidentek atzera bota zuen kexa-idazkia. Otsailaren 5ean, bigarren idazki bat aurkeztu zuen Talde Popularreko parlamentariak, eta Mahaiak atzera bota zuen otsailaren 9an. Jarraian, Talde Popularreko diputatuak babes-errekurtsoa aurkeztu zuen otsailaren 4 eta 9ko ebazpenen aurka.

Badira kontuan hartzeko beste bi jazoera: 1) otsailaren 3an, kexa-idazkia aurkeztearekin batera, Talde Popularreko ordezkariak Estatu Kontseiluaren irizpena eskatu zion Gobernuari, Kongresuko Erregelamenduko 7. artikulua araututako bidetik⁴; eta 2) 36/2020 Errege Lege Dekretua lege-proiektu bilakatzean irekitako zuzenketen epea 2023ko maiatzaren 30a arte luzatu zen.

2. ALDEEN IKUSPUNTUAK

Errekurtsogileak uste du, Kongresuko presidenteari eta Mahaiaren erabakiek parlamentarien *ius in officium* delakoa urratu zutela. Tesi hau bi argudiotan oinarritzen da. Batetik, Kongresuko presidenteari otsailaren 4ko ebazpenak parlamentarien eskubideak zentzu murriztailean interpretatu zituela. Izan ere, errekurtsogilearen ustez, Estatu Kontseiluaren irizpena ez da derrigorrezkoa lege-dekretuak egin eta Kongresuak onesteko. Baina, Gobernuak eskatu badu, beharrezkoa da irizpen hori Kongresura bidaltzea lege-dekretua baliozkotzeko. Egiazki, ez dago betebeharrak hau ezartzen duen artikulurik; ordea, Talde Popularreko diputatuak dioenez, arau parlamentarioak *ius in officium*aren betaurrekoekin interpretatuz gero, hala ondorioztatu beharko litzake. Bestetik, otsailaren 9ko ebazpena legez kanpoko delako deritzo, lege-dekretuak onetsi eta lege-proiektu bihurtzean Estatu Kontseiluaren irizpena aginduzkoa baita (betiere, irizpen hori eginda badago). Kasu horretan irizpena eginda egon arren, ez zen Kongresura bidali lege-dekretua lege-proiektu bilakatzean eta, beraz, *ius in officium*a urratu zitzaizen parlamentariari.

3 Espainiako Konstituzioko 86.2 artikulua eta Kongresuko Erregelamenduko 151.1 artikulua agintzen dutenez, Ministroen Kontseiluak lege-dekretuak onartu eta 30 eguneko epean Kongresuak onetsi beharko ditu.

4 Kongresuko Erregelamenduko 7. art.: "Para el mejor cumplimiento de sus funciones parlamentarias, los Diputados, previo conocimiento del respectivo Grupo Parlamentario, tendrán la facultad de recabar de las Administraciones Públicas los datos, informes o documentos que obren en poder de éstas".

Kongresuko zerbitzu juridikoak ez daude ados errekurtsoarekin. Lehen argudioari dagokionez esaten dute, lege-dekretuak onesteko ez dela derrigorrezkoa Estatu Kontseiluaren irizpena, ez baitago obligazio hori ezartzen duen araurik. Gainera, ez dute uste Kongresuko presidentek egindako interpretazioa *ius in officium*aren aurkakoa denik, 36/2020 Errege Lege Dekretua baliozkotzean Talde Popularrak ez baitzuen inongo gabeziarik adierazi Estatu Kontseiluaren irizpenari lotuta. Bigarren argudioari erreparatuz, zerbitzu juridikoek diote ezin direla lege-proiektuak eta lege-proiektu bihurtutako lege-dekretuak parekatu. Bi izate desberdin dira, eta ondorioz, bati aplikatzen zaizkion arauak ezin zaizkio besteari aplikatu analogiaz. Horrek zera esan nahi du: lege-proiektuen kasuan Estatu Kontseiluaren irizpena derrigorrezkoa den arren, ez dela horrela lege-proiektu bilakatutako lege-dekretuen kasuan.

Fiskaltzak erdibideko ikuspuntua du. Errekurtsogilearen lehen argudioari erreparatuz, ez du uste lege-dekretua onesterako unean Estatu Kontseiluaren irizpena eskura ez izateak diputatuen *ius in officium*a urratu zuenik. Onartzen du irizpenaren gabezia oztopo bat izan zitekeela lege-dekretuaren inguruko iritzi sendo bat osatzeko, baina ez nahikoa oztopo larria. Aldiz, bigarren argudioaren kasuan, *ius in officium*a urratu zela uste du Fiskaltzak. Izan ere, lege-dekretu bat lege-proiektu bilakatzean parlamentariaren rola indartzen da, beraien funtzio legegilea aktibatzen baita. Hortaz, Estatu Kontseiluaren irizpena falta bada, ezingo dute legegile-papera behar bezala bete; hau da, *ius in officium*a urratuko zaie.

III. AZALPEN OROKORRA: “*IUS IN OFFICIUM*” PRINTZPIOA ETA KONSTITUZIO AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIA ETA DOKTRINA

Epai honetan *ius in officium* printzipioa da eztabaida-iturri nagusia. *Ius in officium* printzipioa Espainiako Konstituzioko 23.2 artikuluan barnebiltzen da eta gai publikoetan parte hartzeko eskubidearekin zuzenki lotuta dago. Errekurtsogileen iritzi, Diputatuen Kongresuko Lehendakariaren eta Mahaiaren akordioek aipatutako eskubide hori urratu zuten. Aitzitik, eta datorrenaren aurrerapen gisara, Konstituzio Auzitegiak atzera bota du babes-errekurto, *ius in officium* printzipioaren urraketarik egon denik ukatuz. Beraz, azter dezagun *ius in officium* printzipioaren kategoria juridiko zein edukia, eta baita printzipio honen inguruko doktrina eta jurisprudentzia ere.

Ius in officium printzipioa ordezkartza-kargu publiko bat izateko eskubidea izango litzateke, legeek aurreikusten dutenarekin bat (Monereo eta Guindo, 2007: 6). Lehenik eta behin, *ius in officium* printzipioa Konstituzioko 23. artikuluekin lotu behar da. Kargu publiko edota ordezkari izatera iristeko eskubidean hezuramaitzen da eta ordezkarien lana, eskubideak eta gainerakoak identifikatzen dira, parlamentariaren estatutua osatzen duten ahalmenen multzoa definituz. *Ius in officium* printzipioa bermatzen duena 23.2 artikulua da, kargu publikoetara sartzeko aukera-berdintasunari

erreferentzia eginaz. Konstituzio Auzitegiaren 23/1984 Epaiak eskubidea hiru une ezberdinetan ezarri zuen: kargu publikorako sarbidean, kargu publikoan jarraitzean eta kargu publikoan jardutean (Moral, 2017: 16).

23.2 artikuluan ordezkatzeko-politikorako eskubidea jasotzearekin batera, esan behar da parlamentuetako erregelamenduei dagokiela ordezkari politikoen eskubide eta eginbeharrak ezartzea. Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, 93/2023 Epaiak kasu, *ius in officium* printzipioa urratutzat joko da soilik parlamentuetako erregelamenduen urraketek parlamentarien berdintasuna ezbaian jartzen badute. Hala ere, Konstituzioaren 72.1 artikuluan jasotako autonomia parlamentarioaren printzipioarekin lotu behar da ezinbestean. Izan ere, parlamentuetako organoei (Mahaia eta Lehendakaritza, kasu) erregelamendua interpretatzeko ahalmena aitortzen zaie (Sánchez Navarro, 2024: 65). Hala jasotzen da, esate baterako, aztergai dugun Konstituzio Auzitegiaren 10/2024 Epaiak ere, oinarri juridikoetako bigarrean.

Era berean, parlamentuetako mahaiei dagokie ekimen parlamentarioen juridikotasuna eta bideragarritasun prozesala zaintzea, erregelamenduek ezartzen dituzten baldintza formalak betetzen direla ziurtatuz. Horrez gain, parlamentuetako mahaien funtzioen pean sartzen dira ekimen parlamentario bakoitzean beharrezkoak diren aurrekariak ezartzea edota lege-proiektuen onargarritasunari buruzko erabakiak hartzea. Hala eta guztiz ere, erabakiak arrazoituak izan beharko dira. Beraz, auzitegien kontrola arrazoiketaren nahikotasunera eta koherentzia juridikora mugatuko da. Laburbilduz, auzitegiek ezingo lukete parlamentuetako mahaien erabakien eta kexei emandako erantzunen aurka egin, behar bezala arrazoituak eta justifikatuak badira. Hala berretsi du Konstituzio Auzitegiak bere hainbat epaietan, 40/2003 eta 242/2006 epaietan besteak beste.

Konstituzio Auzitegiaren 68/2013 Epaiak jasotzen denez, izapide parlamentarioko aurrekari baten hutsuneak garrantzia izango luke, soilik ezinbesteko elementua bada dagokion ganberako kideek erabaki bat hartzeko. Kasu horretan, *ius in officium* printzipioaren urraketa larria gertatuko litzateke. Guri dagokigunez, Estatu Kontseiluaren irizpena ezinbesteko elementua den ala ez erabaki beharko litzateke *ius in officium* printzipioaren urraketarik egon den jakiteko.

Hala ere, eta irizpena ezinbestekoa den gorabehera, garrantzitsua da Konstituzio Auzitegiaren 108/1986 Epaiak aipatzea. Epaiak jasotzen denez, nahitaezko aurrekari baten kasuan, aurrekariaren hutsunearen salaketak berehalakoa izan beharko du eta salaketarik gabe ezingo da esan *ius in officium* printzipioaren urraketarik egon denik. Beraz, gure kasura etorruta, garaiz egindako salaketarik ezak (lege-dekretua baliozkotu aurretik, behintzat) garrantzia izango du *ius in officium* printzipioaren urraketaren ezezpenean.

IV. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN ERABAKIA

Puntu honetan Konstituzio Auzitegiaren epaia aztertuko dugu, babes-errekurtsoa ezesteko erabilitako oinarri juridikoen azterketa egitearekin batera.

Lehenik eta behin, babes-errekurtsoaren objektua zehazten da eta, horren arabera, babes-errekurtsoaren muina izango da 2021eko otsailaren 4ko Diputatuen Kongresuko lehendakariaren eta otsailaren 9ko Diputatuen Kongresuko Mahaiaren akordioek errekurtsogileen ordezkaritza politikorako eskubidea⁵ edo *ius in officium* urratu zuten ebaztea.

Ius in officium printzipioaren balizko urraketarik badagoen aztertzeko, legegintza-prozedurako bi une ezberdinetan egingo da azpimarra: alde batetik, 36/2020 Errege Lege Dekretua baliozkotzen den unean eta, bestetik, lege-proiektu gisa izapidetzen den unean.

Lege-dekretua baliozkotzeko uneari dagokionez, Estatu Kontseiluaren irizpena baliozkotze-unearen aurretik ez emateak, prozedura parlamentarioa urratu eta diputatuek euren funtzioak egoki betetzea eragotzi zuela salatu du errekurtsogileak.

Aldiz, Estatu Kontseiluaren irizpen falta salatu zen uneari erreparatzen dio Konstituzio Auzitegiak. Lege-dekretua urtarrilaren 28an baliozkotu zen eta otsailaren 3ra arte errekurtsogileak ez zuen kexarik adierazi. Beraz, Estatu Kontseiluaren txostena ez edukitzeak ez zuen oztopatu parlamentarien *ius in officium* printzipiorik, baliozkotze-edo indargabetze-faseari dagokionez. Gainera, diputatu guztiek zuten (edo izan zeza-keten) irizpenaren berri, lege-dekretuarekin batera Diputatuen Kongresuari igorritako arauen eragina aztertzeko memorian jasota zetorrelako. Ondorioz, *ius in officium*aren urraketa zegoela uste bazuten, baliozkotzeko izapidearen aurretik aurkeztu behar zuten kexa eta ez ondoren, kasu honetan gertatu den bezala.

Diputatuen Kongresuko Mahaiak eta Lehendakaritzak Talde Parlamentario Popularraren idatziei emandako erantzunak ere aztertu ditu Konstituzio Auzitegiak. Horren iritziz, erantzunak egokiak eta behar beste arrazoituak izan ziren. Horrez gain, Mahaiak Diputatuen Kongresuko Erregelamenduaren inguruan egindako interpretazioa egokia eta arrazoizkoa dela deritzo. Izan ere, nahikoa da lege-dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean⁶ argitaratzea⁷ eta Estatu Kontseiluaren txostena ez da beharrezkoa.

Lege-dekretua lege-proiektu bezala izapidetzeko unean ere baztertu egiten du Auzitegiak *ius in officium*aren urraketarik egon denik. Nahiz eta lege-dekretua lege-

5 Espainiako Konstituzioko 23.2 artikulua bidez babestua dena.

6 Estatuko Aldizkari Ofiziala. Gazteleraz, *Boletín Oficial del Estado*.

7 Diputatuen Kongresuko Erregelamenduaren 151.1 artikulua.

proiektu bezala izapidetuko den presazko prozeduraren bidez⁸, horrek ez du esan nahi lege-proiektuei eskatzen zaizkien baldintzak bete beharko direnik. Izan ere, Konstituzioak eta Diputatuen Kongresuko Erregelamenduak diote baliozkotutako lege-dekretuak, lege-proiektuen bidetik izapidetuko direla baina ez direla lege-proiektu bilakaturako izaerari eta jatorriari dagokionean.

V. BOTO PARTIKULARRAREN ANALISIA

Epaiarekiko desadostasuna adieraziz, boto partikularra eman zuten lau magistratuk⁹. Horien iritziz, babes-errekurtsoak onetsia izan beharko zukeen, Talde Parlamentario Popularreko diputatuen *ius in officium*erako eskubidea urratu zela aitortuz.

Epaiarekin ez ziren ados agertu, iritzi baitzuten parte-hartze politikorako esku-bidea bertan behera geratu zela, Estatu Kontseiluaren irizpena ematea justifikaziorik gabe ukatu zutelako Diputatuen Kongresuko lehendakariak eta Mahaiak.

Oinarri juridikoen atalean bezala, hemen ere bi zatitan banatuko dugu balizko *ius in officium*aren urraketaren azterketa. Lege-dekretua baliozkotzeko izapideari dagokionez, boto partikularra eman duten magistratuek ere ukatu egin dute *ius in officium*aren urraketarik egon denik. Lege-dekretu bat baliozkotu edo atzera botatzeko Konstituzioak eta Diputatuen Kongresuko Erregelamenduak ezartzen duten baldintza bakarra diputatuek horren berri izatea da. Hain zuzen ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, arauetan jasotzen den moduan.

Hala ere, boto partikularra emandako epaileek diote, beharrezkoa ez izanagatik ere, komenigarria litzatekeela funtzio parlamentarioaren mesedetan lege-dekretuak osatzeko erabili diren testu, txosten edota dena delakoak partekatzea. Hala eta guztiz ere, onargarritzat jotzen dituzte Diputatuen Kongresuko lehendakariak eta Mahaiak Talde Parlamentario Popularreko bozeramaileak egindako kexei emandako erantzunak, arauekin bat datozen heinean.

Aldiz, bestelakoa da lege-proiektu modura izapidetzen ari diren bitartean Estatu Kontseiluaren irizpena ez bidaltzearen inguruan duten iritzia. Kasu honetan, ez datoz bat epaiaren zentzuarekin. Izan ere, boto partikularra ematen dutenek ulertzen dute lege-proiektu bezala izapidetzean lege-proiektuei aplikagarri zaizkien baldintzak bete behar direla; horien artean, Estatu Kontseiluaren irizpena emateko betebeharra sorraziz. Aldiz, Konstituzio Auzitegiaren gehiengoak dioenez, lege-proiektu bezala iza-

8 Espainiako Konstituzioko 86.3 artikulua.

9 Ricardo Enríquez Sancho, Enrique Arnaldo Alcubilla, César Tolosa Tribiño eta Concepción Espejel Jorquera magistratuek.

pidetu arren, lege-dekretu izaten jarraitzen du. Jakina, espresuki lege-proiektuentzat aurreikusitako arauak eta baldintzak aplikagarri izan gabe.

Horrenbestez, boto partikularra ematen duten magistratuen ustez, Espainiako Gobernuak Estatu Kontseiluaren irizpena bidali behar zion Diputatuen Kongresuari, lege-dekretua lege-proiektu gisa izapidetzeko orduan.

Egiari zor, Espainiako Gobernuak 2021eko martxoaren 9an Estatu Kontseiluaren irizpena bidali zuen. Epaian jasotzen zenez, Estatu Kontseiluaren irizpena bidali izanagatik, *ius in officiumaren* urraketarik ez zen egon eta egindako bidalketa horretan egin zuten azpimarra. Baina bidalketa oso berandu egin zen, boto partikularrean jasotzen denez. Lau magistratuek uste dute berandu entregatzeak *ius in officiumaren* urraketa dakarrela berarekin. Jada osoko zuzenketen fasea igarota zegoen eta soilik artikuluen gaineko zuzenketak ziren posible.

Gainera, Gobernuari egindako informazio-eskaera baten bitartez jaso zen Estatu Kontseiluaren irizpena eta ez Diputatuen Kongresuko Mahaiak diputatuen parte-hartze politikorako eskubidearen baitan eskatu zuelako. Horrez gain, boto partikularren arabera, ez omen zen irizpena bera entregatu, Estatu Kontseiluaren datu basera bidaltzen duen *link* bat baizik. Laburbilduz, boto partikularra eman duten magistratuentzat hori guztia nahikoa litzateke diputatuen *ius in officiuma* urratu zela ondorioztatzeko.

VI. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA

Talde Popularreko ordezkariak planteatutako lehen eztabaida ildoari dagokionez, logikoa da pentsatzea Kongresuko presidentearen otsailaren 4ko erabakiak ez zuela diputatuen *ius in officiuma* urratu. Konstituzio Auzitegiaren epaia eta boto partikularra ere bat datoz puntu horretan. Izan ere, Kongresuko Erregelamenduko 151.1 artikulua¹⁰ interpretazio posible eta arrazoizkoa da lege-dekretuak baliozkotzeko Estatu Aldizkari Ofizialean argitaratzea nahikoa izatea.

Bada, ordea, zalantza sortzen duen elementu bat. Epaia garrantzi handia ematen dio Talde Popularrak kexa planteatu zuen uneari. Gogora dezagun lege-dekretua baliozkotu ondoren adierazi zuela parlamentariak lehenengoz ezinegona, otsailaren 3an. Hortaz, Konstituzio Auzitegiak dio lege-dekretua baliozkotzean ezin izan zela diputatuen *ius in officiuma* urratu. Baina, zer gertatuko litzake lege-dekretua onetsi aurretik egin izan balitz kexa?

10 Kongresuko Erregelamenduko 151.1 art.: "El debate y votación sobre la convalidación o derogación de un Real Decreto-ley se realizará en el Pleno de la Cámara o de la Diputación Permanente, antes de transcurrir los treinta días siguientes a su promulgación, de conformidad con lo establecido en el artículo 86.2 de la Constitución. En todo caso la inserción en el orden del día de un Decreto-ley, para su debate y votación, podrá hacerse tan pronto como hubiere sido objeto de publicación en el Boletín Oficial del Estado".

Aztergai dugun epaitik honakoa ondoriozta daiteke: lege-dekretua baliozkotu aurretik adierazten bada informazio faltari lotutako kexa, ulertu behar da iritzia osatzea eta funtzio parlamentarioa betetzea oztopatu zaiela diputatuei. Hots, garaiz egindako kexak *ius in officium*aren urraketa bat dakar, betiere, kexa horren objektua ezinbesteko informazio falta bada. Pentsatzekoa da Estatu Kontseiluaren irizpena ezinbesteko informaziotzat har daitekeela, lege-testuaren lanketa tekniko-juridiko sakona egin ohi baita bertan. Baina, aldi berean, Gobernuak ez dago behartuta Estatu Kontseiluari txosten bat eskatzera lege-dekretuak egiteko¹¹. Horrenbestez, parlamentarien *ius in officium* urratuko da, soilik hurrengo baldintzak betetzen badira: 1) Lege-dekretua onetsi aurretik adierazi bada kexa; 2) eskatutako irizpena eginda badago, irizpenak ez baitira aginduzkoak kasu guztietan; 3) irizpen hori ezinbesteko informaziotzat hartzen bada lege-dekretuaren inguruan parlamentariak beraien iritzia osatzeko eta 4) aurreko hiru baldintzak bete arren, Gobernuak ez badu lege-dekretuarekin batera dagokion irizpena bidali Kongresura.

Horrela, Kongresuko Erregelamenduko 151.1 artikulua dioenaren interpretazio egokia, gure ustez, honakoa litzake: lege-dekretuak baliozkotzeko nahikoa da horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, salbu eta azaldutako egoera gertatzen bada: 1) lege-dekretua lantzeko Gobernuak irizpenak eskatu badizkie aholku organoei; 2) irizpen horiek ez badira Kongresura igorri lege-dekretuarekin batera; 3) aipatutako irizpenak ezinbesteko informaziotzat hartzen badira lege-dekretuaren onespenera begira, eta 4) lege-dekretua baliozkotu aurretik adierazi bada kexa.

Bigarren argudio lerroari helduz, marko orokor bezala, uste dugu interpretazio oro jarduera parlamentarioaren mesedetan egin behar dela. Ezin dugu ahaztu parlamentuak direla demokrazien ezinbesteko organoak, bertan islatzen delako hobekien herritarren egiazko borondate politikoa (Balaguer et al., 2020: 538-539). Are presentago eduki behar dugu ideia hori gaur egun, botere legegilea indarra galtzen ari baita exekutiboaren mesedetan (Ferrajoli, 2013; 46).

Tesi hau gurera ekarriz, uste dugu lege-dekretu bat lege proiektu bezala izapidetzeak esan nahi duela lege-proiektuaren eskakizun guztiak bete beharko dituela. Horrela, informazio gehiago edukiko dute eskura parlamentariak, kontuan izanik, lege-proiektuen izapidetzean rol garrantzitsuagoa dutela lege-dekretuen onespenera baino. Hortaz, Estatu Kontseiluaren irizpena bidaltzea derrigorrezkoa litzake Konstituzioko 88. artikulua oinarri hartuta. Ikusi dugun bezala, Gobernuak muzin egin zion betebeharrak horri.

Hala ere, gure ustez ez da parlamentarien *ius in officium* urratu, nahiz eta arau-urraketa bat egon. Printzipioz, Espainiako Konstituzioko 23.3 artikulua lege-konfigu-

11 Hala ondorioztatzen da Estatu Kontseiluaren 3/1980 Legeko 21 eta 22. artikuluetatik.

razioko eskubidea da. Horrek esan nahi du, parlamentuetako erregelamenduei dago-kiela eskubide horri forma ematea. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak zera dio:

No obstante, el art. 23.2 CE no consagra un derecho al respeto de todas y cada una de las prescripciones de aquellos reglamentos, con la consecuencia de que el derecho de los representantes y en particular su *ius in officium*, solo podrá considerarse vulnerado si las aducidas contravenciones de las normas internas de las asambleas [...] contrarían la naturaleza de la representación por afectar al núcleo de sus derechos y facultades (KAE 93/2023, 2023ko irailak 12, 3. OJ).

Gure kasuan informazio-eskaera baten bidez jaso zuen Talde Popularreko ordezkariak Estatu Kontseiluaren irizpena. Gainera, zuzenketak aurkezteko epea irekita zegoen oraindik aipatutako irizpena jaso zuenean. Hortaz, Kongresuko Mahaiak arau bat oker aplikatu zuen arren, ez zen diputatuen *ius in officiuma* urratu, Talde Popularreko parlamentariak, beste bide batetik (informazio-eskaeraren bidetik) baina garaiz, jaso zuelako Estatu Kontseiluaren irizpena.

Bukatzeko, azken hausnarketa modura, gardentasunari eta Gobernu eta Parlamentuaren arteko informazio-elkartrukeari aipamen txiki bat egin nahiko genioke. Logikoa da Parlamentuaren eta Gobernuaren arteko harremana tenkatuta egotea; are gehiago, Parlamentuko gehiengoak hauskorak direnean. Oposizioak etekin politikoa atera nahi izaten du eztabaida parlamentariotik, eta ondorioz, Gobernuak estualdiak bizi ohi ditu lege-testu bat Parlamentutik igarotzen den aldiro. Egoera hori, orekatuta mantentzen den bitartean, guztiz arrunta eta beharrezkoa da. Baina, botere exekuti-boak tentuz erabili behar ditu legegintza sustatzeko eskura dituen tresnak; esate baterako, lege-dekretuak. Bestela, erraz galtzen da oreka. ♦

BIBLIOGRAFIA

Balaguer Callejón, F. et al. (2020). *Manual de derecho constitucional*. Volumen II. Madrid: Tecnos.

Ferrajoli, L. (2013). *Poderes salvajes. La crisis de la democracia constitucional*. Madrid: Trota.

Iglesia Chamarro, A. de la (1997). *El Gobierno por decreto*. Iruñea: Universidad de Navarra.

Lasalle, F. (1984). ¿Qué es una constitución?. E. Aja, Estudio preliminar (7-72 orr.). Ariel: Madrid.

Monereo Pérez, J. y Guindo Morales, S. (2020). El *ius in officium* y la reincorporación al puesto de trabajo desde una posición jurídica de excedencia forzosa. *Revista de Jurisprudencia Laboral*, 7. https://doi.org/10.55104/RJL_00161

Montilla Martos, J. A. (2023). Fragmentación parlamentaria y forma de gobierno en España (2015-

2023). *II Jornadas Parlamentarias del Congreso de los Diputados: el parlamento fragmentado y la forma de gobierno: 30 y 31 de enero de 2023* (19-54 orr.). Madrid: Diputatuen Kongresua.

Moral Sánchez, I. del (2017). *El mandato representativo y el ius in officium de los cargos públicos representativos en el Derecho Español* [Trabajo de Fin de Grado]. Universidad de Valladolid.

Sánchez Navarro, A. J. (2024). El procedimiento legislativo a la luz de la jurisprudencia del Tribunal Constitucional. *Última jurisprudencia del Tribunal Constitucional en materia parlamentaria: 2024ko urtarrilaren 22an eta 23an Vitoria-Gasteizen egindako mintegia* (43-78 orr.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.